

GASTEIZ-EIBAR AUTOPISTAK (AP-1) AURRERAPAUZO ERABAKIGARRIA EMAN DU LUKO ETA ESKORIATZA ARTEKO 17 KILOMETRO BERRIEN IREKIERAREKIN

Autopista berriak Araba eta Gipuzkoa arteko komunikazioen iraultza ekarriko du eta dagoeneko zerbitzuan daude bere 7 zatietatik 6. Arrasate eta Eskoriatza arteko azken zatiaren irekiera datorren ekainerako espero da.

Eskoriatza eta Isuskitza arteko zatirako, 10,8 kilometroko luzerakoa, 5 bidezubi eta Zarimutz eta Isuskitzako tunelak eraiki behar izan dira, azkena, 3,4 kilometroekin, euskal bide-sareko luzeena da eta Gipuzkoa eta Araba lotzen ditu.

Luko-Eskoriatza zatian ibiltzeagatik ez da bidesaririk ordaindu beharko AP-1 autopista osoa irekita geratu arte.

Epe laburrean Araba eta Gipuzkoa arteko komunikazioen iraultza ekarriko duen 46 kilometroko luzera duen Gasteiz-Eibar (AP-1) autopista eraikitzeko prozesuak bere amaierarako pauso erabakiorra emango du gaur (2009ko apirilak 6) Luko (Araba) eta Eskoriatza (Gipuzkoa) arteko 17 autopista kilometro berri irekiko baitira.

Irekiera-eragiketaren barne aurkitzen dira Eskoriatza-Isuskitza zatiko 10,8 kilometroak. Zati honen gehiengoa Gipuzkoako lurraldetik igarotzen da eta orografia maldatsu bati aurre egin dio 5 bidezubirekin (Marin, Zarimutz, Mazmela, Uztarreta eta Apotzaga) eta Zarimutz (500 metroko luzera) eta Isuskitzako (3,4 kilometro) tunelekin, azken hau euskal bide-sareko luzeena da eta Gipuzkoa eta Araba lotzen ditu.

Luko eta Eskoriatza arteko irekierari esker, AP-1ek bere 7 zatietatik 6 zerbitzuan ditu eta bere osotasunean zerbitzuan hasteko bezperan aurkitzen da. Izan ere, autopista osoaren irekiera datorren ekainerako espero da, Arrasate-Eskoriatza zatia zerbitzuan jartzen den uanean.

AP-1 AUTOPISTA

ESKORIATZA – ISUSKITZA zatia

- *Luzera: 10, 8 kilometro**
- *Tunel eta bidezubiaren luzera: 5, 6 kilometro (guztiaren %51)**
- *Galtzada kopurua: 2 (bakoitza 7 metroko zabaleraekin)**
- *Kanpo-bazterbideak: 2, 5 metroko zabalera**
- *Barne-bazterbideak: metro 1eko zabalera**
- *Erdibitzailea: 2 metroko zabalera**
- *Gehieneko malda: %4, 5**
- *Gehieneko malda Isuskitza tunelean: %2, 5**

Egitura nagusiak

- Isuskitza tunela (3, 4 kilometro)**
- Zarimutz tunela (500 metro)**
- Marin bidezubia(598 metro)**
- Zarimutz bidezubia(480 metro)**
- Mazmela bidezubia (404 metro)**
- Uztarreta bidezubia (240 metro)**
- Apotzaga bidezubia (180 metro)**

Obren hasiera: 2004ko iraila

Obren amaiera: 2009ko apirila